

IRAKASKUNTZA-GIDA 2017/18

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 2. maila

IRAKASGAIA

25076 - Psikometria

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Psikometriak aldagai psikologikoak neurtzeko beharrezko balditzak eta prozedurak aztertzen ditu. Kontzepturik oinarritzkoenak fidagarritasuna eta baliagarritasuna izanik, testen bidez lorturiko puntuazioak ongi interpretatzeko eta erabiltzeko bitarteak eta gomendioak eskaintzen ditu psikometriak. Psikometriak psikologiako zein gizarte-zientzietako edozein arlotan du tokia.

Testak, profesionalak euren jardun profesionalean erabiltzen dituzten tresnak dira. Aplikazio-eremuak zabalak dira psikologiam, hala nola, psikologia klinikoa, hezkuntzazkoa, neuropsikologia, erankunden psikologia, kirolaren psikologia, gizarte zerbitzuak, osasuna eta ongizatea, trafikoa…

Irakasgaiaren ikuspuntua nagusiki praktikoa da. Ikasleak bere jardun profesionalean, ebaluazioarekin, orientazioarekin edota selekzioarekin lotura duten konpetentziak dira gure helburua.

Psikometria ongi eramateko, garrantziskoa da ikasleak aurreko urteetan emandako gai metodologiaren jabetza izatea; estatistika deskribatzailea, asoziazio-neurriak, erregresio-ereduak edota oinarritzko diseinuak.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Neurketa-ereduen ezaugarriak eta horietako bakoitzaren ekarpenak ezagutzea.
2. Aldagai psikologikoak neurtzeko eta deskribatzeko gai izatea.
3. Hainbat testuingurutan, neuketa-ereduak aplikatzeko eta neurketa-tresnen kalitate-irizpideak baliosteko gai izatea.
4. Testen bidez eskuratutako puntuazioetatik eratorritako inferentzien baliagarritasuna aztertzeko prozedura egokienak aukeratzeko, aplikatzeko eta balioesteko gai izatea.
5. Testen erabilpenerako kode deontologikora egokitzen den txosten psikometrikoa eraikitzeke eta publikoki defendatzeko gai izatea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Testen teoria
2. Neurketa tresnen eraketa
3. Testen eredu klasikoa
4. Fidagarritasuna
5. Itemen analisis eredu klasikoaren esparruan
6. Itemari erantzutearen ereduak eta Aplikazioak
7. Baliagarritasunaren kontzeptua eta bilakaera
8. Puntuazioak eraldatzea eta berdintzea
9. Testak zuzen erabiltzeko irizpide etikoak eta deontologikoak

METODOLOGIA

Irakasgaiak e-gela erabiltzen du. Bertan beharrezko materialeak, esteka interesgarriak, ariketak eta berriak eskaintzen dira.

Irakasgaiaren ikuspunta praktikoa da eta irakasgai-modalitateak (klase teorikoak, gela-praktikak- ordenagailu-praktikak, tailerrak eta mintengiak) urtean zehar burutu beharreko proiektuari zuzenduta daude.

Ikasleek urtean zehar test bat sortu eta horren ezaugarri psikometrikoak aztertu behar dituzte. Talde-lana da hori, eta azken notaren %25a da. Talde bakoitzak kurtso-bukaeran testaren-eskuliburua aurkeztu eta defendatu beharko du.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	2	9		11		6		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	48	3	13,5		16,5		9		

Legenda: M: Maistrala S: Minteia GA: Gelako d. GL: Laboratediko d. GO: Ordenaailuko d.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa d.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 75
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 25

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa teorikoaren sortioa 7,5 da
Praktikaren bidez lortu daiteken gehieneko nota 2,5 da

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa-teorikoa aukera-anitzeko testa da, eta azken notaren %75a da.
Lan praktikoa notaren %25a da.

Lan-praktikoa egin nahi ez dutenek, azken azterketarako aukera izango dute. Bertan ariketa teorikoak eta atal praktikoa gainditu beharko dute.

Ez-ohiko deialdia. Orientabideak eta uko egitea

Ohiko deialdiaren ezaugarri berdinak ditu

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak e-gelan jarriko ditu praktikak egiteko eskuliburuak

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Abad, F.J., Olea, J., Ponsoda eta García, C. (2011). Medición en ciencias sociales y de la salud. Madrid. Síntesis.
- Embretson, S.E. Y Reise, S.P. (2000). Item response theory for psychologist. Mahwah, NY. Lawrence Erlbaum.
- Elosua, P. (2003). Sobre la validez de los tests. Psicothema 15(2), 315-321.
- Elosua, P. (2005). Psicométrica. Testen eraketa eta erabilpena. Leioa: EHU
- Elosua, P., Bully, P., eta Mujka, J. (2013). Psikometriako praktika-gidaliburua. Leioa: EHU
- Elosua, P. eta Etxeberria, J. (2013). Rcommander eta datuen analisisa. Leioa: UEU
- Hambleton, R.K. (1990): Item Response Theory: Introduction and Bibliography. Psicothema, 2(1), 97-107.
- Martínez Arias, R., Hernández Lloreda, M^a J., Hernández Lloreda, M^a V. (2006) Psicometría. Madrid. Alianza Editorial.
- Muñiz, J (1996): Psicometría. Ediciones Universitas. Madrid (Cap. 2)
- Thissen, D. y Wainer, H. (2001): Tests scoring. Mahwh, NY. Lawrence Erlbaum.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Elosua, P. (2010). R gizarte-zientzietarako. Datuen eta Eskalen analisisa Rcommander-ekin: Universidad del País Vasco.
- Elosua, P. (2011). Introducción al entorno R. Leioa: UPV.
- Elosua, P. (2011). Psicometría. Conceptos básicos y aplicaciones prácticas con Rcommander. Leioa: UPV/EHU.
- Elosua, P. (2013). Los tests psicológicos en la práctica profesional. Madrid: Consejo General de la Psicología.
- Haladyna, T.M. (1999): Developing and validating multiple-choice test items. Hillsdale, NJ: Lea
- Hambleton, R.K. (1990): Item Response Theory: Introduction and Bibliography. Psicothema, 2(1),97-107.
- Linn, R.L. eta Gronlund, N.E. (2000) Measurement and assessment in teaching (8th edition). Upper Saddle River, NJ: Prentice Hall
- Nunnally, J.C. eta Bernstein, I.J.(1995): Teoría Psicométrica. Mcgraw-Hill. México.
- Olea, J.; Ponsoda, V. Y Prieto, G. (Eds). (1999). Tests informatizados: fundamentos y aplicaciones.

Madrid: Pirámide.

Thissen, D. eta Wainer, H. (2001): tests scoring. Mahwh, NY. Lawrence Erlbaum.

Van Der Linden, W. J.Y Hambleton, R. K., Eds. (1997). Handbook of modern item response theory. New York: Springer-Verlag.

Aldizkariak

Anales de Psicología <http://www.um.es/analesps/>

Papeles del Psicólogo <http://www.cop.es/papeles>

Psicothema <http://www.psicothema.com/>

Interneteko helbide interesgarriak

American Psychological Association, American Educational Research Association, And National Council On Measurement In Education, (2014: Standards for educational psychological tests. American Psychological Association. Washington D.C. (<http://www.apa.org/science/standards/html>) (<http://www.apa.org/science/standards/html>)

Asociación Española de Metodología de las Ciencias del Comportamiento (aemcco):

<http://www.aemcco.org/>

Colegio Oficial De Psicólogos. <Http://www.cop.es>

Comisión Internacional de Tests. <Http://www.cop.es/tests>

International Test Commission <http://www.intestcom.org/>

OHARRAK

Klaseetara etortzea beharrezkoa ez baldin bada ere, biziki gomendatzen da irakasgaia egunean eramateko. Izan ere, klase teorikoetan azaltzen diren kontzeptuak ongi ulertzea beharrezkoa baita psikometria bereganatzeko eta bestelako praktikak ongi burutzeko.